

Koiuntura di-da batean

2016ko ekaina

Aurkibidea

1. EAEko BPGa
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Kanpo merkataritza
5. Espainiako BPGa
6. ELGEren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %3,3 hazi zen 2016ko lehen hiru hilekoan.

Hala kontsumoa nola inbertsioa erritmo bizian handitu ziren.

2. Enplegu sorrerak ia aldaketarik gabe jarraitu zuen 2016ko hasieran.

Industriak nabarmen bizkortu zuen lanpostuak sortzeko erritmoa.

3. Apirilean, azpiko inflazioa %0,9ra arte moteldu zen.

Aste Santua hileko ezberdinetan ospatu izanak alderaketa baldintzatu du.

4. EAetik atzerrira bidalitako esportazioek hazkundea berreskuratu zuten.

Inportatutako produktuen balioa jaitsi zen, erregai mineralen merkatzearengatik.

5. Kontsumo pribatuak Espainiako BPGaren hazkundea bultzatzen du.

Inbertsioak aurreko hiruhilekoetakoa baino gehikuntza nabarmen apalagoa jaso zuen.

6. Munduko ekonomia erritmo apalean haziko da 2016an eta 2017an.

Eskari ahulak epe luzerako hazkunde aurreikuspena murriztu du.

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %3,3 hazi zen 2016ko lehen hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



2016ko lehen hiru hilekoetan, EAEko ekonomiak hazkunde erritmoa %3,3ra arte bizkortu zuen, urte arteko tasan neurtuta. Emaiza horrek zortzi hamarrenetan uzten du BPGaren hiruhileko arteko tasa. Barne eska-riaren bi osagaiek gorakada esanguratsuak lortu zituzten. Alde batetik, azken kontsumoa %3,1 hazi zen, kontsumo pribatuaren sendotasunari (%3,3) eta kontsumo publikoaren bizkortzeari (%2,4) esker. Beste aldetik, kapital eraketa gordinak bizitasun handia erakutsi zuen, %3,4ko hazkunde batekin. Tasa hori ekipamendu-rako ondasunetan eginiko inbertsioaren gehikuntzan (%10,7) oinarritu zen bereziki. Azkenik, kanpo merka-taritzak handitu zituen esportazioak zein inportazioak eta hazkundeari eginiko ekarpena hutsala izan zen.


Azken kontsumoko bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Inbertsioaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasa



Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpen alor guztiek balio erantsia areagotu zuten urte arteko tasan, salbuespen bakarra eraikuntza izan zelarik, jarduerak berriro murriztu zuelako. Nabarmentzekoa da industriaren gehikuntza sendoa, bereziki manufacturen esparruan. Zerbitzuek ere bilakera positiboa erakutsi zuten, hazteko joera eten-gabe baten barruan. Guztira, balio erantsi gordinak %3,3ko urte arteko tasa jaso zuen 2016ko lehen hiruhilekoan, 2007tik eskuratu duen datu-rik onena baita.


Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren b.e.

Urte arteko aldakuntza tasa



Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jardueren b.e

Urte arteko aldakuntza tasa




LAN MERKATUA

Enplegu sorrerak ia aldaketarik gabe jarraitu zuen 2016ko hasieran

Enpleguaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomien informazioak adierazten du enplegu sorrerak, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan kalkulatuta, bilakaera onari eutsi ziola 2016ko hasieran, aurreko emaitza ia berdinduz. Zehazkiago adierazita, lehen hiruhilekoaren urte arteko tasa %1,93 izan zen, 2015eko amaieran lortu zen %1,98 hartatik oso hurbil. Zenbakien antzekotasunak hazkunde erritmoa egonkortu dela seinalatzen du, ia seguru datozen epealdietara ere luzatuko dena. Ekonomiaren sektore nagusien artean, eraikuntzak bakarrik galdu zituen lanpostuak hiruhileko horretan, baina gaur eguneko jaitsiera tasak 2014an eta aurreko urteetan jaso zirenak baino askoz ere txikiagoak dira. Aitzitik, lehen arloak balio positiboak berreskuratu zituen, gorabehera handiak izaten dituen bilakaera baten barruan.


Enplegua lehen arloan

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua eraikuntzan

Urte arteko aldakuntza tasa



Enplegua industrian

Urte arteko aldakuntza tasak




Industriak aurreko hiruhilekoko gehikuntza areagotzea lortu zuen eta %1,2ko urte arteko tasa eskuratu zuen, azken bederrazi urteko handiena. Horrek esan nahi du azken hamabi hilekoetan 2.300 lanpostu inguru sortu direla. Horretaz gain, sektorearen produktibitateak gehikuntza garrantzitsua izan zuen, 3,5 puntuen ingurukoa, batez besteko historikotik (2,1 puntu) oso gora dagoena.


Zerbitzuek sortu zituzten EAEko ekonomiaren lanpostu berri gehienak eta %2,3 areagotu zuten beren enplegua urte arteko tasan, ia 15.000 lanpostu berri lortuta. Beraz, seigarren hiruhilekoz jarraian zerbitzuek %2,0tik gorako aldakuntza tasak lortu dituzte. Hala ere, nolabaiteko apaltzea hauteman da sektore horren enplegu sorreran, aurreko hiruhilekoko %2,7tik aipatu berri den 2016ko hasierako %2,3ra igaro delako.

Enplegua zerbitzuetan

Urte arteko aldakuntza tasak

**Afiliazioa Gizarte Segurantzari**

Urte arteko aldakuntza tasak




Gizarte Segurantzako afiliazioaren ikuspegitik, enpleguaren hazkundeak jarraipena izan du aurtengo bigarren hiruhilekoan ere eta aldakuntza tasak ez dira aurreko hiruhilekoetan lortutakoetatik gehiegi aldenitu. Hain zuzen ere, apirilean %2,1eko urte artekoa jaso zuen, 2016ko lehen hiruhilekoko emaitza berdinduz. Are gehiago, azken hamabi hilekoetan ia etengabe jaso dira %2,0tik zertxobait gorago dauden gehikuntza tasak.

INFLAZIOA

Apirilean, azpiko inflazioa %0,9ra arte moteldu zen

Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko KPI indizeak berriro tasa negatiboa jasotzea ez da albiste. Aitzitik, azpiko inflazioak bere goranzko joera etengabea moztea eta hiru hamarreneko moteltzea izatea, %0,9an kokatu arte, hori berrikuntza bat da prezioen analisisan. Bilakaera horretan paper erabakigarria jokatu zuen Aste Santua efektuak, 2016an martxoan ospatu delako, iaz apirilean izan zen bitartean. Horrek azaltzen du aisia eta kulturaren, alde batetik, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeen, beste aldetik, jaitsiera.

KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2014	2015	2016ko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,2	-0,3	-0,7	-0,7
Azpiko inflazioa (%82,6)	0,3	0,7	0,9	0,7
- Elikagai landuak (%14,1)	0,0	1,1	1,4	0,2
- Industria ondasunak (%26,6)	0,1	0,3	0,7	0,2
- Zerbitzuak (%41,9)	0,6	0,8	0,9	0,3
Hondar inflazioa (%17,4)	-0,6	-4,5	-7,8	-1,4
- Landu gabeko janariak (%6,8)	-1,2	1,9	3,8	0,2
- Energia (%10,6)	-0,1	-8,4	-14,7	-1,6


KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



KPlaren beheranzko joera aldatu daiteke datozen hilekoetan, kontuan hartuta Brent motaren salneurria suspertzen ari dela azken hilekoetan. Izan ere, urte hasieran 30 dolarren azpitik kokatu zen, baina gaur egun 50 dolarretara hurbildu da. Petrolioaren garestitze hori eskariaren eta eskaintzaren aldetiko arrazoiek argitzen dute.

Zehazkiago, petrolio gordina ekoizten duten hainbat herrialdek eskaintza murriztu dute azken hilekoetan. Beraien artean, aipatu behar dira Nigeria, Libia, Kanada, kasu horretan suteen ondorioz, eta AEB, prezioen jaitsierarengatik petrolio ez-konbentzionalaren erauzketan eginiko inbertsioak murriztu dituelako. Aitzitik, petrolioaren eskaria Asiako herrialde batuetan, hala nola Indian, eta AEBetan bertan hazi da, lehengaiaren prezio merkeak bultzatuta. Halaber, aurreikuspenek iradokitzen dute eskaria aurrean eta datorren urtean areagotuko dela. Beraz, oso litekeena da petrolioaren salneurriak gorako joerari eustea.

KPlaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2016ko apirila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,7	-1,1	-0,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,5	2,0	0,6
Edari alkoholodunak eta tabakoa	0,2	0,5	1,6
Jantziak eta oinetakoak	0,7	0,5	0,4
Etxebizitza	-6,8	-7,1	-1,7
Etxeko tresneria	0,4	0,2	0,4
Medikuntza	1,1	-0,2	0,9
Garraioa	-4,7	-5,1	-3,1
Komunikazioak	3,5	3,4	0,1
Aisia eta kultura	-2,9	-2,6	-0,1
Hezkuntza	0,5	0,5	1,7
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,2	1,1	1,7
Bestelakoak	1,6	1,6	0,8


Iturria: INE eta Eurostat.

KANPO MERKATARITZA

EAEtik atzerrira bidalitako esportazioek hazkundera berreskuratu zuten

Esportazio guztien eta ez-energetikoen bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasak



2016ko lehen hiruhilekoan, atzerrira esportatutako ondasun guztiak %2,4 areagotu ziren. Tasa hori ez da oso esanguratsua, baina amaiera ematen dio etengabeko jaitsieren bi hiruhilekoko epealdiari. Energiako (%18,3) eta garraio materialeko (%25,0) salmentak azaltzen du, neurri handi batean, igoera hori. Tonatan, esportazio guztien gehikuntza %5,4 izan zen. Beraz, salgaien trafikoaren igoera beraien balioarena baino handiagoa izan zen.

Inportazio guztien eta ez-energetikoen bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak



Inportazioei dagokienez, petrolioaren merkatzeak energia ondasunen erosketaren balioa baldintzatu zuen (%-36,3) eta horrek inportazioen guztizkoa beheratu zuen, jaitsiera %7,6ra areagotuta. Energiatz bestelako produktuek ere salneurrien merkatzea hauteman zuten, baina neurri txikiagoan. Hain zuzen ere, energiatz bestelako inportazioak %2,0 hazi ziren. Kasu horretan, ekipamendurako ondasunen eta plastikoa eta kautxuaren gorakadak lagundu zuen hazkunde hori eskuratzen.

ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOEN HELBURUA

	2014	2015	2015				2016	
			I	II	III	IV	I	I mila €
GUZTIRA	9,1	-1,3	-7,0	4,3	-0,2	-2,4	2,4	5.115.064
ELGE	9,0	1,6	-3,9	6,6	0,2	3,0	7,4	4.245.952
Europar Batasuna	12,3	0,9	-6,0	6,5	0,9	2,0	7,6	3.436.142
Frantzia	1,3	5,6	-1,6	13,4	2,9	7,1	7,4	857.985
Alemania	4,8	2,4	-1,9	5,1	-7,1	14,6	7,7	823.191
Erresuma Batua	14,0	6,8	-0,5	5,4	16,3	6,6	-0,6	312.799
Italia	9,9	16,9	38,1	19,7	6,7	6,8	-3,8	291.145
AEB	15,0	0,7	-6,0	2,2	9,4	-3,6	15,3	383.919
ELGETik kanpokoak	9,6	-11,0	-17,3	-3,6	-1,8	-19,5	-16,7	869.112

Esportazioen gehikuntza herrialde garatuetan gauzatu da, batez ere hurbilen daudenetan. Garapen bidean dauden ekonomietan saldutakoak, ordea, berriro murriztu zuen bere balioa. Europako herrialdeen artean, Alemaniara eta Frantziara esportatutakoa nabarmendu behar da, bietan salmentak %7 baino gehiago areagotu zirelako. Automobilaren salmentak izan zuen bizitasunak azaltzen du gorakada hori. Izan ere, Alemanian saldutako produktu guztien %50 ibilgailu automobilak izan ziren (ekoiztutako automobil guztien %31,4) eta Frantziak, berriz, automobilaren ekoizpenaren %15 bereganatu zuen.

Inportazioei dagokienez, erosketen bilakaera txarra eremu guztietara hedatu zen, neurri handi batean energiako produktuen salneurriek baldintzatuta. Hain zuzen ere, Europar Batasunetik ekarritako inportazioen balioa %4,5 jaitsi zen, Erresuma Batuan erositutako energiaren jaitsierak kaltetuta. Kontuan hartu behar da Erresuma Batua energiaren hornitzaile nagusia zela, %35eko kuotarekin, baina aurtengo hasieran %1 bakarrik bereganatu duela. Bere tokian Errusia, Nigeria eta Saudi Arabia daude gaur egun.

INPORTAZIO EZ-ENERGETIKOEN JATORRIA


	2014	2015	2015				2016	
			I	II	III	IV	I	I mila €
GUZTIRA	7,4	-3,0	-11,3	6,7	-5,7	-1,4	-7,6	3.536.003
ELGE	11,9	2,7	-10,3	27,1	-2,3	1,1	-10,4	2.380.647
Europar Batasuna	25,5	5,5	-4,7	27,1	-3,0	5,8	-4,5	2.123.858
Frantzia	-2,2	11,7	11,3	14,3	11,2	10,2	-12,0	391.827
Alemania	5,2	20,6	2,4	25,3	32,4	23,8	23,0	632.446
Erresuma Batua	187,8	15,1	80,2	80,6	1,9	-14,8	-56,6	96.778
Italia	2,8	3,5	4,7	-3,4	0,3	13,3	-2,5	187.828
AEB	-52,5	2,9	-23,6	22,9	23,4	19,1	-41,4	70.714
ELGETik kanpokoak	-0,7	-14,4	-13,7	-20,2	-13,1	-7,8	-1,4	1.155.356

ESPAINIAKO HAZKUNDEA

Kontsumo pribatuak Espainiako BPGaren hazkundera bultzatu du

Espainiako BPGaren hazkundera


Aldakuntza tasak



Espainiako ekonomiak %0,8ko hazkundera jaso zuen aurtengo urtariletik martxora bitartean, aurreko hiru-hilekoarekin alderatuta. Tasa horrek aurreko sei hilekoetakoa berdindu zuen. Urte arteko tasan, BPGaren igoera %3,4 izan zen, aurreko hiruhilekoko baino hamarren bat txikiagoa. Barne eskariak ekarpen txikiagoa egin zion hazkunderari, baina neurri batean konpentsatuta geratu zen kanpo eskariaren ekarpen negatiboa txikiagoa izan zelako.

Espainiako BPGaren hazkundera


Ekarpenak



Iturria: INE.


Kontsumo pribatua

Urte arteko aldakuntza tasak



Kontsumo publikoa


Urte arteko aldakuntza tasak



Zehazkiago, kontsumo pribatua izan zen ekonomia jardueraren bultzagile nagusia, lan merkatuaren bilakaera onean eta prezio apaletan oinarrituta. Aitzitik, bai kontsumo publikoak bai inbertsioak hazkunde erritmoa apaldu zuten. Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituzten, baina bizitasun gutxiago haute-man da 2015eko azken hilekoetan jaso ziren tasen aldean, bereziki industrian eta eraikuntzan. Lan merkatuari dagokionez, enplegua sendo hazi zen berriro eta bi hamarretan hobetu zuen aurreko emaitza. Tasa horrek (%3,2) esan nahi du azken urtebetean lanaldi osoko 533.000 lanpostu balio-kide sortu zirela.

Inbertsioa

Urte arteko aldakuntza tasak




	BPG merkatu prezioetan				Enplegua adarka			
	2015-II	2015-III	2015-IV	2016-I	2015-II	2015-III	2015-IV	2016-I
BPG / Enplegua	3,2	3,4	3,5	3,4	2,9	3,1	3,0	3,2
Lehen arloa	2,0	3,7	6,2	5,5	0,9	4,1	5,3	5,5
Industria	3,6	3,8	3,4	2,6	3,2	3,0	2,3	2,4
Eraikuntza	5,8	5,1	4,0	2,6	7,9	5,1	3,1	0,9
Zerbitzuak	3,0	3,3	3,4	3,5	2,6	3,0	3,0	3,4
- Merkataria, ostalaritza eta garraioa	4,6	5,1	5,3	5,0	2,7	2,8	3,4	3,7
- Informazioa eta komunikazioak	5,0	5,0	4,6	6,1	3,3	5,0	3,3	5,8
- Jard. finantzarioak eta aseguruak	-0,4	-1,1	0,2	2,2	1,6	0,3	1,3	2,1
- Higuezinen jarduerak	0,9	0,7	0,8	0,9	0,4	2,0	5,8	4,9
- Jard. prof. zientifiko eta teknikoak	6,5	5,7	4,9	5,1	4,8	5,6	3,5	4,5
- Herri Adm., hezkuntza eta osasuna	1,1	2,2	2,4	2,2	1,6	2,4	2,3	2,2
- Jard artistik. olgetak eta bestelakoak	3,9	4,0	4,5	4,4	2,3	1,9	2,7	3,4

ELGE-REN AURREIKUSPENAK

Munduko ekonomia erritmo apalean haziko da 2016an eta 2017an

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) aurreikuspen berrien arabera, munduko ekonomiaren hazkundera 2016an %3,0an kokatuko da eta 2017an %3,3ra igoko da. Beraz, 2016ko otsailean argitaratu ziren aurreikuspenen aldean ez dago aldaketarik. Ekonomia eszenategiaren ezaugarri nagusiak honakoak dira: ekonomia aurre-ratuen hazkunde apala eta azaleratzen ari diren ekonomia askoren moteltzea. Hain zuzen ere, Amerika Latinorako igurikimenak ez dira oso onak, nahiz eta aldea dagoen herrialde batzuen eta bes-teen artean.


ELGEren ekonomia aurreikuspenak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2015	2016	2017	2016	2017
Munduko ekonomia	3,0	3,0	3,3	=	=
AEB	2,4	1,8	2,2	-0,2	=
Eurogunea	1,6	1,6	1,7	0,2	=
Alemania	1,4	1,6	1,7	0,3	=
Frantzia	1,2	1,4	1,5	0,2	=
Italia	0,6	1,0	1,4	=	=
Espainia	3,2	2,8	2,3	0,1	-0,2
Erresuma Batua	2,3	1,7	2,0	-0,4	=
Kanada	1,2	1,7	2,2	0,3	=
Japonia	0,6	0,7	0,4	-0,1	-0,2
Txina	6,9	6,5	6,2	=	=
India	7,4	7,4	7,5	=	0,2
Brasil	-3,9	-4,3	-1,7	-0,3	-1,7


Iturria: ELGE.

AEBetako BPGa


Urte arteko aldakuntza tasak

**Euroguneko BPGa**


Urte arteko aldakuntza tasak

**Alemaniko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak

**Espainiako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak




Munduko ekonomiak arrisku askori egin behar die aurre. Izan ere, garatzen ari diren ekonomia askok zaugarritasun handia erakusten dute truke tasaren aldaketa bortitzen eta barneko zor altuaren aurrean. Beste aldetik, aktiboen finantza merkatuek gorakadak eta beherakadak gehiagotan gertatzen direla islatzen dute. ELGEk arriskutzat jotzen ditu Brexita eta horrek Erresuma Batuan, Europan eta ekonomia globalean ezarritako zituen kostuak.

Halaber, ELGERen diagnostikoan produktibitatearen hazkundera moteldu da eta desberdintasuna areagotu da. Eskariaren ahultasun luzeak epe luze-rako hazkunde aurreikuspenak gutxiagotu ditu.

Iturria: ELGE.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015				2016
			I	II	III	IV	I
BPG	1,4	2,8	2,2	2,7	3,0	3,1	3,3
Familien kontsumoa	1,6	3,1	2,9	3,3	3,3	3,1	3,3
Administrazioaren kontsumoa	1,1	1,6	0,2	1,1	3,2	1,8	2,4
Kapital eraketa gordina	-0,6	2,0	1,3	1,8	2,2	2,6	3,4
Barne eskaria	1,1	2,6	2,1	2,7	3,1	2,8	3,1
Esportazioak	3,6	-0,2	-0,2	0,7	-3,2	2,1	4,2
Inportazioak	3,0	-0,2	-0,3	0,7	-2,8	1,6	3,9
Lehen arloa	-10,0	7,4	5,5	-3,0	7,3	22,3	9,3
Industria	1,5	2,7	0,3	3,1	3,1	4,3	4,8
Eraikuntza	-3,2	0,0	0,6	0,2	-0,2	-0,6	-0,3
Zerbitzuak	1,5	3,0	3,0	2,9	3,2	2,8	3,0
Balio erantsi gordina	1,1	2,8	2,2	2,7	3,0	3,1	3,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,8	3,0	2,7	2,9	3,3	3,1	3,2

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2016ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016				2016
	I	II	III	IV	
BPG	3,0	2,7	2,3	2,1	2,5
Barneko azken kontsumoa	2,5	2,3	2,0	1,7	2,1
Familien kontsumoa	2,9	2,6	2,2	1,9	2,4
Administrazioaren kontsumoa	1,1	1,2	1,0	1,0	1,0
Kapital eraketa gordina	2,8	2,7	2,5	2,5	2,6
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,5	2,2	1,9	2,3
Kanpo eskariaren ekarpena	0,3	0,2	0,1	0,2	0,2
Lehen arloa	2,8	0,7	-0,8	-1,9	0,2
Industria	3,9	3,1	2,6	2,0	2,9
Eraikuntza	0,1	0,5	0,7	0,7	0,5
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,5	2,4	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	2,7	2,4	2,1	2,5
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,9	2,6	1,9	1,8	2,3
Enplegua	2,0	1,8	1,6	1,5	1,7

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2016	2017		2016	2017
Funcas	2,9	—	Confebask	2,6	—
Laboral Kutxa	2,8	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,5	1,9
CEPREDE	2,7	2,3	BBVA	2,4	2,5

Iturria: CEPREDE (2016ko maiatza), BBVA (2016ko maiatza), Confebask (2015eko abendua), Laboral Kutxa (2015eko abendua), Funcas (2016ko otsaila) eta Hispalink (2015eko abendua).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015				2016
			I	II	III	IV	I
BPG	1,4	3,2	2,7	3,2	3,4	3,5	3,4
Kontsumo pribatua	1,2	3,1	2,6	2,9	3,6	3,5	3,7
Kontsumo publikoa	0,0	2,7	1,5	2,5	3,0	3,7	2,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,5	6,4	6,1	6,3	6,7	6,4	5,2
- Aktibo finko materialak	3,7	7,2	7,0	7,1	7,6	7,1	5,7
- Eraikuntzan	-0,2	5,3	6,2	5,2	5,2	4,6	3,1
- Ekipamendu ondasunetan	10,5	10,2	8,3	10,1	11,2	10,9	9,8
- Jabetza intelektualaren produk.	2,1	1,8	1,0	1,9	1,7	2,8	2,3
Nazio eskaria (ekarpena)	1,6	3,7	3,1	3,4	4,1	4,1	3,8
Esportazioak	5,1	5,4	5,8	6,0	4,5	5,3	3,7
Inportazioak	6,4	7,5	7,6	7,4	7,2	7,7	5,4

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2016	2017		2016	2017
AFI	2,7	2,3	Intermoney	2,6	2,1
BBVA	2,7	2,7	Repsol	2,8	2,5
Bankia	2,8	2,3	Santander	2,9	2,3
Caixa Bank	2,8	2,4	Solchaga Recio & asociados	2,6	2,3
Cemex	2,8	2,3	BATEZ BESTE	2,7	2,3
CEEM-URJC	2,6	2,4	Gobernua (2016-04)	2,7	2,4
CEPREDE-UAM	2,5	2,0	Espainiako Bankua (2016-04)	2,7	2,3
CEOE	2,7	2,5	Europar Batzordea. (2016-05)	2,6	2,5
FUNCAS	2,7	2,3	NDF (2016-04)	2,6	2,3
ICAE-UCM	2,8	2,4	ELGE (2016-06)	2,8	2,3
IEE	2,8	2,3	The Economist (2016-05)	2,8	2,3
IFL-UC3M	2,8	2,0	Consensus Forecast (2016-05)	2,7	2,3

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015				2016
			I	II	III	IV	I
AEB	2,4	2,4	2,9	2,7	2,1	2,0	2,0
Txina	7,3	6,9	7,0	7,0	6,9	6,8	6,7
Japonia	0,0	0,5	-0,9	0,7	1,8	0,9	0,0
Kanada	2,5	1,2	2,1	1,0	1,1	0,5	—
Europar Batasuna	1,4	1,9	1,7	1,9	1,9	1,8	1,7
Eurogunea	0,9	1,6	1,3	1,6	1,6	1,6	1,5
Alemania	1,6	1,7	1,1	1,6	1,7	1,3	1,6
Frantzia	0,2	1,2	1,0	1,1	1,2	1,4	1,3
Erresuma Batua	2,9	2,3	2,6	2,4	2,2	2,1	2,1
Italia	-0,4	0,8	0,2	0,5	0,8	1,1	1,0
Herbehereak	1,0	2,0	2,6	2,2	2,0	1,3	1,4

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2016ko maiatzeko aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
AEB	1,8	2,3	1,2	2,3	4,8	4,6
Japonia	0,5	0,5	0,0	1,5	3,2	3,1
Kanada	1,7	2,2	1,6	2,0	7,1	7,0
Europar Batasuna	1,8	1,8	0,4	1,5	—	—
Eurogunea	1,6	1,6	0,2	1,3	10,2	9,8
Alemania	1,6	1,5	0,4	1,6	6,3	6,5
Frantzia	1,3	1,5	0,2	1,2	9,9	9,7
Erresuma Batua	1,9	2,2	0,7	1,7	5,0	4,9
Italia	1,1	1,2	0,1	1,1	11,3	10,9
Herbehereak	1,5	1,7	0,7	1,4	—	—

Iturria: Consensus Forecast.